

JESUSEN BESOETAN KABIA

Doinua: "Hona bildots ezitia

ZURE BESO GAINEAN TXORITXOAK KABIA, MAITASUNEZ SORTUAZ BIZI BARRIA

1

Bizia sortu nahi
ta leku bila,
Jesus, bion arte
izan dedila.

2

Bizi barriz nahi dot
bete mundua,
zoragarria da
beharlekua.

3

Txoriak dakar lur,
basa, hondarra,
Zuk ezarriz gero
bizi-indarra.

4

Kontuz ta karinoz
kabi apaintzen,
Zu, Jesus, hor zagoz
arduraz zaintzen.

5

Txori txikia da,
baina txit fina,
Jaunak egingo dau
Berak ezina.

6

Zenbat txori txiki
gure artean,
holako bat, Jauna,
bego gurean.

7

Horra kume polit
eta ugari,
hori da Zuretzat
Jauna, pozkari.

8

Ai gure txoritxo
maitagarriak,
zuen kumez jantzi
gure herriak.

9

Txoriak ez dabiliz
zalapartaka,
maitasunak bere
bidea dauka.

10

Zeuk bialdu, Jauna,
txori txikiak,
baina maitasunez
Zeu lez haundiak. *Aita Martzel*